

Garbitasunaren garrantzia

Norberaren garbitasunaz eta, batez ere, etxeko arropa zer maiztasunez garbitu behar den aztertuko dugu jarduera honetan.

Ariketa hauek egin ditzakezu:

- Etxeko zenbait arropa zenbatean behin garbitu behar den adierazi.
- Irratsaioko pasarte bat ahoz kontatu eta taldeko forora bidali grabazioa.
- Irratsaioan entzundakoarekin, hitz batzuen sinonimoak aurkitu eta esaldiak osatu.
- Garbitasun-neurri batzuk proposatu taldeko foroan, eta denon artean egokienak aukeratu.

Oharra: Ikasgelan ez bazaude, talde-jarduera hau egiten hasi aurretik, adostu irakaslearekin b... er...
komunikazio-tresna: foroa, posta elektronikoa, WhatsApp, Teams, Hangout, Google Duo, Skype



1. Etxeko arroparen garbitasuna

- Zure ustez, zenbat aldiz garbitu beharko genituzke etxean erabiltzen ditugun arropa hauek? Osatu ondorengo taula.

Etxeko arropa	Zenbatetik behin?
1- pijama	1)
2- toallak	2)
3- maindireak	3)
4- edredoiak	4)
5- barruko arropa: kaltzontzillo-kuleroak, galtzerdiak	5) <i>egunero</i>
6- galtza bakeroak	6)

- Orain entzun audioa eta zuzendu erantzunak.

- AEBko aireportuetan egindako ikerketaren berri ematen dute audioaren hasieran. Kontatu labur ahoz zer egin zuten eta igo audioa forora.



Komentatu taldeko pare bat lagunekin igotako audioak eta taulako datuak.



<https://labur.eus/GGQ3a>



Galdetzeko: zenbat aldiz, zenbatetan, zenbatean/zenbatetik behin... garbitzen duzue pijama?

Ez da egokitzat jotzen galdetzeko ***zenbatero**

Erantzuteko: **egunero, astean behin, astean bitan, egunean 3 aldiz...** (*Bi astero, *8 orduero...)



2. Hitzen sinonimoak eta esaldiak osatzen

– Entzun aurreko orriko audioa (edo begiratu transkripzioari) eta idatzi [azpimarratutako](#) hitzen sinonimoak

1. Ikerketa horretan, ikertzaileak espiatzen egon ziren:
2. Batzuek ez dute pijamarik erabiltzen, biluzik egiten dute lo:
3. Higienikoena da bakoitzak bere toalla erabiltzea:

– Osatu audioan esaten dituzten esaldi hauek:

- Bizitzako plazerik ederrenetakoa da
- Bakero batzuk garbitu berritan janzteia baino
- 60 °-tan garbitu behar da barruko arropa

– Partekatu erantzunak taldeko beste lagun batekin.



3. Garbitasun-neurriak proposatzen

Koronabirusa dela-eta, kontzientzia handiagoa hartzen ari gara garbitasun-kontuetan. Proposatu pare bat neurri higienearekin edo garbitasunarekin lotuta, hemendik aurrera denok zorrotz bete beharko genituzkeenak.

Bidali zure proposamena forora. Begiratu taldekideek bidalitako proposamenei eta adostu denon artean bizpahiru.



“ Nik proposatuko nuke agurtzerakoan eskua ematea, musurik ez ematea ”

ERANTZUNAK

1. Etxeko arropen garbitasuna

Etxeko arropa	Zenbatetik behin?
1- pijama	1) 3 egunean behin
2- toallak	2) 3 egunean behin
3- maindireak	3) astero
4- edredoiak	4) urtean bitan
5- barruko arropa: kaltzontzillo-kuleroak, galtzerdiak	5) egunero
6- galtza bakeroak	6) lauzpabost erabilera egin ondoren

2. Hitzen sinonimoak eta esaldiak osatzen

1. Ikerketa horretan, ikertzaileak espiatzen egon ziren: **zelatan egon**
2. Batzuek ez dute pijamarik erabiltzen, biluzik egiten dute lo: **larrugorritan**
3. Higienikoena da bakoitzak bere toalla erabiltzea: **esku-oihala, xukadera**

- Bizitzako plazerik ederrenetakoa da **ohea egin berrian, maindire garbiak sentitzea**
- Bakero batzuk garbitu berritan janzteia baino **gauza zailagorik, lakarragorik ba ote dago?**
- 60 °-tan garbitu behar da barruko arropa **balizko onddo eta bakterioak desagerrarazteko**



TRANSKRIPZIOA

Manu Etxezortu kazetaria. Gaur garbitasunaz hitz egiteko asmotan zara, ez?

Idoia Torregarai kolaboratzailea. Gaur bai, garbitasunaz. Bai, Garbitasunaz. Eta gai hau ekarri dut hona bi konturengatik edo bi arrazoiengatik, ezta? Alde batetik, bueno, behin eta berriro, behin eta berriro entzuten ari garelako ba ze garrantzitsua den orain, ba bueno, koronabirus, gripearri buruz eta... oinarrizko ba bueno, eskuak eta garbitzea eta...

Manu Etxezortu. Oinarrizko higieena.

Idoia Torregarai. Oinarrizko higieena bat mantentzea. Ba bueno, horrek inspiratu nau, baita ere, gaurko gairako. Izan ere, topatu dut ikerketa batean, ikerketa batean, duela urte batzuk egindakoa; Estatu Batuetan izan zen, baina jarri ziren ikertzaileak non? Ba aireportuetako komunetan, kanpoan, bueno kanpoan edo barruan, kanpoan izango zen, zelatan.

Manu Etxezortu.. Bai.

Idoia Torregarai. Ikertzaileak, e, imajinatu itzazue zuek aireportuko komunetan, han sartuta, eta aztertzen eta markatzen nork, komunetik atera ondoren, eskuak garbitzen zituen. Eta ondoren, beste bat zegoen kanpoan galdetzeko ea garbitu zituzten edo ez. Eta noski, batetik bestera bazegoen aldea. Jendeak, galdetzerakoan noski, ba erantzuten zuen % 95ek baietz, garbitzen zituela, baina gero, hor, komunean barruan zegoenak ttak-ttak egiten, % 67k soilik garbitzen zituela ikusi zuten.

Manu Etxezortu. Bai. Bai. Ez, ze zu fijasen baldin bazara, hemen ere, komunetan, zinera joaten zarenean, zineko komunetab, edo aireportuko komunetan...

Idoia Torregarai. ...edo garraioetan...

Manu Etxezortu. ...geltokiko komunetan. Jende asko ateratzen da komunetik -adibidez, gizonezkoen komunean-eskuak garbitu gabe.

Idoia Torregarai. Hori da. Entzuleei galdera egiten diegula, lehenengo galdera izango da ea eskuak garbitzen dituzuen.

Eta hau da luzatzen dizuedana, baita ere, entzuleoi, eta da: zenbatero garbitu behar da pijama?

Manu Etxezortu. Pijama, ez? Entzule baten galdera, Idoia. Faktoria: "Noiz garbitu behar dira eskuak? Komunera sartutakoan ala ateratzerakoan? Nik, badaezpada ere, bietan egingo nuke: sartutakoan eta ateratzerakoan garbiketa".

Idoia Torregarai. Hori da. Zalantzaurrean bietara, garbitu eta jota fuego: garbitu, garbitu!

Manu Etxezortu. Hori da, hori da. Beste batek dio: "Nik pijama astean bi aldiz garbitzen dut".

Idoia Torregarai. Eta dagoeneko Twitterren ere erantzunak jasotzen ari naiz, eta batzuek jada esaten dute: "Pi... zer? Larrugorritan hobe egiten da lo!"

Manu Etxezortu. Goazen objektuz objektu.

Idoia Torregarai. Bai. Bai. Lehenengo objektua. Toallak.

Manu Etxezortu. Toallak.

Idoia Torregarai. Bai? Eskuoihalak.

Manu Etxezortu. Xukaderak.

Idoia Torregarai. Xukaderak. Hiru egunean behin garbitu beharko genituzke. Alde batetik, pertsona desberdinek erabiltzen ditugulako, eta horiek germen eta bakterio asko pilatzen dituztelako. Berez, familiako kide bakoitzak bere toalla izan beharko luke. Eta gero, badaukagu hor behean, alfonbrila horietako bat, komunean izaten duguna. Hola, gero ateratzen garenean dutxatik, alde batetik...

Manu Etxezortu. ...dutxatik ateratzerakoan hankak gozatzeko, ez?

Idoia Torregarai. ...muturrez ez erortzeko. Eta hori oraindik(an) gehiago. Horiek hezetasun askoz gehiago pilatzen dute. Zer dio herriak?

Manu Etxezortu. Herriak dio: "Guk pijama etxean astero aldatzen dugu, astean behin aldatzen dugu".

Idoia Torregarai. Sukaldekoak zer esanik ez! Zeresanik ez sukaldekoak. Sukaldekoak egunero, egunero bota beharko litzateke (garbitzera).

Manu Etxezortu. Beste objektu bat. Beste bat.

Idoia Torregarai. Bueno ba, maindireak. Izan ere, ja dagoeneko batzuek esan dute larrugorritan lo egiten dutela. Oso ondo: pijamarik ez dute garbitu behar. Baina maindireak arrazoi bikoitzagatik pentsatzen dut, ezta? Bueno, ba hemen astero aldatzea komeniko litzateke. Eta kasu honetan, ba gaixo baldin bagaude, hau da, izerdi gehiago botatzen ari baldin bagara, kalenturak baldin baditugu, ba horiek izango lirateke, ba hiru egunean behin edo aldatu beharko genituzte.

Manu Etxezortu. Bale.

Idoia Torregarai. Eta edredoiak, buruko estalki horiek, ba bueno, hori ere, zuzenean baldin badaukate, gure izerdiarekin kontaktua baldin badaukate, maizago, baina bestela, ba urtean bitan edo nahikoa izango litzateke.

Manu Etxezortu. Bale.

Idoia Torregarai. Baina zer gauza, zer plazerra izaten den!/: maindire garbiak jarri, ohea egin berri-berri izan, eta ttak...

Manu Etxezortu. Hori da bizitza honetako plazerrik handienetako bat.

Idoia Torregarai. Niretzat bai. Zalantzak, zalantzak egoten dira, Manu: barruko arropa.

Manu Etxezortu. Barruko arropa.

Idoia Torregarai. Barruko arropa ere...

Manu Etxezortu. ...kuleroak, galtzontzilloak.

Idoia Torregarai. Bai. Hori da. Galtzerdiak, pixka bat, baina kuleroetan eta galtzontzilloetan batez ere. Beste batzuek esaten zuten, ezta, zikintzen zarenean, kendu, buelta eman, eta beste aldera begira jartzen zituztela, ezta? Horrelakoak ere entzun izan ditugu.

Manu Etxezortu. Bai. Entzun izan ditugu.

Idoia Torregarai. Eta guk, esan behar da, ba zer esango dizuet: egunero-egunero aldatu behar dira.

Manu Etxezortu. Aldatu behar dira galtzerdiak, kuleroak, galtzontzilloak.

Idoia Torregarai. Eta ez hori bakarrik, ez hori bakarrik. Gutxienez 60 gradu zentigraduko tenperaturan garbitu beharko genituzke...

Manu Etxezortu. Hainbeste, e?

Idoia Torregarai. ...barruko arropa horiek. Balizko ondo eta bakterioak desagerrarazteko, tenperatura baxuagoan ez direlako desagertzen hain erraz.

Manu Etxezortu. Entzule batek galdera egiten dizu ea errepikatzeko, faborez, garbigailua, labadora, zenbatero garbitu behar den.

Idoia Torregarai. Bueno, esaten da urtean behin edo, edo sei hilabetero gutxienez.

Beste objektu bat. Zalantza daukagu galtza bakeroekin. Izan ere, bakeroa, prakak edo janzten ditugunean gero eta goxoago bezala gelditzen dira, leunago gelditzen dira, ezta? Baina hemen ere, klaro! Kontuan hartu behar da lau edo bost erabileraren ondoren garbitu beharko genituzkeela. Baina hemen zein da problema, Manu? Ba badakizu? Zer da? Galtza bakero batzuk garbitu berritan janztea baino gauza zailagorik ba ote dago? Ba ote dago gauza zailagorik? Eta lakarragorik?

Manu Etxezortu. Eta bukatu dezagun produktu izarrarekin.

Idoia Torregarai. Noski!

Manu Etxezortu. Pijama, zenbatero garbitu behar da, Idoia?

Idoia Torregarai. Hiru egunean behin garbitu beharko genuke. Zergatik? Ba bakterio pila bat pilatzen ditu, ba batez ere gaez izerdi gehiago izerditzen dugu, eta gernu-infekzioak ere etorri daitezke.

